



# EUSKARA ZUZARA

**PRAKTIKATU GUREKIN!**


**IKUSI BIDEOA**

**1. IKASKETA PROZESUA**

**2. MINTZALAGUN PROGRAMA**

**3. EUSKARA AGENDA**

**4. KOMUNIKAZIOA**



# 1. IKASKETA PROZESUA



## 2. MINTZALAGUN PROGRAMA

- **Mintzataldeak**
- **Tailerrak eta txangoak**
- **Bestelako aukerak**



## 2. MINTZALAGUN PROGRAMA

### 11 aukera euskaraz praktikatu eta bizitzeko

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat.

**Edonork parte har dezake:** euskararen bidea egiten ari denak, praktikaren bidez euskara hobetu nahi duenak edota euskaraz bizitzeko aukera gehiagoren bila dabilenak. Parte hartzeko gutxieneko euskara-maila eskatzen da



## 2. MINTZALAGUN PROGRAMA

### Mintzataldeak

Partaideak binaka, hirunaka... edo talde txikietan batzen dira; horiek osatzeko, kontuan hartzen ditugu parte-hartzaileen disponibilitatea, adina eta zaletasunak.

Mintzataldeak bildu ahal dira kafetegian, tabernan, edo paseoan ibiltzeko... **parte-hartzaileek erabakitzen dute non eta noiz**, beti lagun-giroan.



## 2. MINTZALAGUN PROGRAMA

### Gurasolagun

**Familiantzako mintzataldeak dira;** jolasak, txangoak eta tailerrak egiten ditugu, **helduak eta haurrak batera aritzeko.** Hainbat familia batzen direnez, aukera aproposa ere bada lagun berriak egiteko. Asteburu-pasak ere antolatzen ditugu (urtean bitan, gutxienez)





## 2. MINTZALAGUN PROGRAMA

### Kultura eta Aisia

Antolatzen ditugun ekintzen bidez, beste hainbat aukera topatuko dituzu **euskal kultura ezagutu eta euskara praktikatzeko**. Besteak beste: hitzaldiak; irakurzale-klubak; sukaldaritza-eskulan-yoga edo dantza-tailerrak; kantulagunak...



## 2. MINTZALAGUN PROGRAMA

### Mintzodromoak

Mintzodromoak herriko plazan antolatzen dira, eta **aukera ezin hobeak izaten dira inguruko euskaltzaleok batzeko.**

*Jalgi hadi plazara!*



## 2. MINTZALAGUN PROGRAMA

### ONLINE ere bai

Zure ordenagailu, tablet edo telefonotik beste euskaldun batzuekin hitz egin nahi baduzu, online eskaintza ere baduzu: **mintzataldeak, autu-mautuak, lehiaketak...**



## 2. MINTZALAGUN PROGRAMA

### Abantailak

**Parte-hartzea dohainik da, eta hamaika abantaila eskura ditzakezu:** emanaldietarako txartelak, opariak eta deskontuak, esaterako: AIZU!, ARGIA, BERRIA eta GAZTEZULOKO harpidetzetan...



### 3. EUSKARA AGENDA

Zure taldearekin aritzeaz gain, beste hainbat **ekintza osagarri eta txango** antolatzen ditugu euskaraz praktikatzeko eta ondo pasatzeko.

Ekintzen zerrendatik zuen proposamenak jaso eta guztion artean **euskara agenda** osatuko dugu.

**Egin zureak eta parte hartu!**



## 4. KOMUNIKAZIOA

Mintzalagun eta euskara agendaren berri hurrengo guneetan izango dituzu.

### **BLOG**

<https://praktikatu.eus/blog/barakaldo>

### **Facebook**

<https://www.facebook.com/ezkerraldeko.berbalagunak>

### **Whatsapp**

678 626 567

